



PAULA KASARES

EKAINAK 19

Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai. Ikerbideak eta kontzeptuak berrikusten

Saio honek euskararen belaunez belauneko jarraipenaren ikerketa-alor baterako oinarriak sendotzeko ekarpena egin nahi du.

Hizkuntzaren gizaldirik gizaldiko jarraipena, hau da, belaunaldi berriak euskaldun haztea, euskararen iraupenerako baitezpadakoa dela aspaldian jakina eta onartua bada ere, euskal soziolinguistikak ez du gertakari-prozesu horren gaineko ikerketa sistematikorik garatu. Euskararen transmisioa aztergai izan duten ikerlanak, alde batetik, gutxi dira eta, bertzetik, lan urri horien gehienek ez diete, funtsaren funtsean, gaiaren sakoneko arazoei erantzun.

Lehenik, mintzaira gutxituen transmisioaren gaineko kezka hizkuntza-ukipen gertakari zabalean, zehazkiago, hizkuntza atxikipen-ordezkapen prozesuetan kokatuko dugu. Horri loturiko literatura sozio-antropolinguistikoaren proposamen teoriko-metodologiko nagusiak aurkeztuko ditugu eta batik bat ikermolde antropologikotik egindako ekarpenetan, bereziki hizkuntza sozializazio kontzeptua jorratu duten egileen lanetan barrenduko gara.

Ondotik, euskararen gizaldirik gizaldiko segidari nola so egin zaion arakatuko dugu. Hizkuntzaren iraupena kezkabide izan zuten euskaltzaleen eta lehen ikertzaileen ikusmolde epistemologikotik hasita, egungo euskal soziolinguistikan euskararen jarraipenari heltzeko landu diren hurbilpenak (soziologiko-kuantitatiboa nahiz etnografikoa) agertu eta egileen ekarri nagusiak jorratuko ditugu.

Azkenik, euskararen belaunez belauneko jarraipena aztertzeko eredu bat eratzeko egungo beharretan sakonduko dugu.